




abadagune 'abagune, une egokia, egokiera'	«...frai Arthur, deblauki eta solemneki eman nahi dizut abadagune honetan (...) gure ongi-etorririk bihozkorrena...»	(48)
abagune 'unea, momentua'	«...baina, tira, aprobetxatu duela abagunea prorrogaren asuntoa kontatzeko...»	(71)
abaildu 'erori, akabatu'	«...kale-mutur hits batean abaildu zuten mutil gazte hura bera...»	(102)
abasberuan 'pentsatu gabe, edonola'	« Abasberuan jo dut ate batean...»	(134)
abegi 'harrera'	«Hain abegi ona egin digutenez...»	(133)
abuliko 'gogo gabe, gogo ahul'	«...bere karakter abuliko eta apatikoarekin...»	(65)
adeigabekeria 'errespetu falta'	«Ez al zaik iruditzen adeigabekeria galanta dela hori?»	(117)
adeitsu 'errespetu handikoa, kunplitua'	«...Melillako populazio adeitsu eta ederreslearen aurrean...»	(191)
adinondu 'orekatua, heldua'	«...detektibe pribatu baldarrontzi traketsa, baina —hori bai— inteligentzia eta intuizioaren aldetik adinondu samartua...»	(87)
adinontsu 'dexentea, arrunta'	«...edonor ezin bihur daiteke une batetik bestera bateria-jole adinontsu , aizu...»	(431)
adoregabetu 'adorea galdu'	«Badakizula bera nahiko errazki adoregabetzen dela...»	(65)
agiraka 'oihuka, deiadarka'	«Ez izan beldurrik, ez natzaizue-eta agiraka hasiko.»	(321)
agitu 'gertatu, jazo'	«...zeina omen baita hemen agitzen diren gertakari badaezpadako guztien kausa eta errudun.»	(49)
ahakar 'deiadar, gogor, agirika egin'	«...eta Jaun Prioreak ahakar egin zidan birao egin nuelako...»	(73)
ahalge 'lotsati'	«Mr. Harrisonen boza aditu da, trantzean legokeen "medium" batenaren modukoa, astirotsu eta ahalge ...»	(116)
aharrausikari 'nagia, motela'	«...tintin-hotsa lehenik eta gizaseme boz aharrausikaria ondoren: "tren expreso...»	(16)
ahobero 'aho zikina, ia lotsagabea'	«...ez zitzaigun falta izan betiko "¿por qué no habláis en cristiano?"-kada bota zigun ahoberorik .»	(190)
aihenbelar 'landare igokaria'	«...bidexketatik belar txarrak kentzeko arrastelua pasatzea, aihenbelarrak kimatzea, eta hola.»	(173)
aiher 'grinatsu, kezkatu'	«Gizakiaren ariman larritasuna edo tristura dagoenean, bat aiherrago sentitzen da...»	(131)
aintzatsu 'ohorez bete'	«...Regimiento aintzatsu honi...»	(263)
ainube 'iluna'	«...zeren zertara itzuli zinen laberinto honetara, hamaika urteren buruan, ene Agilulfo ainube hori...»	(145)
aiurri 'adiurrea, izaera'	«Galdetu ere egin zidan ea aiurri bortitzekoa al nintzen...»	(111)
ajeatu 'gorputzaldi txarrekoa, ajeak jota'	«Demagun (...) ni zine-zuzendari ajeatu eta langabezitu bat naizela...»	(11)
akats 'piku'	«...hamarrak eta akatsera arte...»	(166)




akitu 'nekatu, unatu'	«...meatze sakonetan galeriak zulatzen arituz akitzea ...»	(359)
akuratu 'alokatu'	«Autobusa ere akuratua dugu dagoeneko...»	(107)
aldaka 'gerri ingurua, mehaka'	«—Orain batu itzazu bi eskuak zeure bizkarrera, aldaka baino goraxeago ...»	(215)
aldarte 'egoera'	«Gogo- aldarte hau <i>apatia</i> hitzarekin defini liteke agian...»	(154)
aldeztu 'aldekoak egin, babestu'	«Instantzia bat egiteko esan dit, "Capitan General" ari zuzendua, eta berak ahal duen neurrian aldeztuko duela.»	(398)
aldikada 'denboraldia / kasketaldia'	«...pasako duen ia bi ordutako aldikadan ...»	(331)
alhamen 'tormentua / murmurioa'	«...haurtzaro eta nerabezaro osoko alhamen krudel izandakoak?»	(384)
alienatu 'nortasuna galdu'	«...antzu den iharduera alienatu batera kondenaturik egon...»	(181)
alphore 'lurruna'	«...eurien kariaz alphore hezea darie han-hemenkako soro bakan egarberatuegiei.»	(298)
amarru 'iruzur hutsekoa, faltsua'	«...zeren formula lakoniko guztiak (...) tximistura gutxi-asko dotoretuak besterik ez baitira; amarru hutsezko sasi-ginda batzuk.»	(252)
aments 'gutxienez, bederen'	«...gizon libre bat aments ...»	(247)
ameto 'oneritzia, aldekoa'	«Horretan ez, ba, horretan ez dizugu ameterik emango...»	(389)
ametsaire 'ametsa'	«Geldi zaitetz zu hemen, ametsaire hutsezko nagikeriatan ikaturik, horretan plazer baduzu.»	(14)
amorrazio 'arrazioa'	«... amorrazio bat eman diola...»	(70)
anabasa 'nahaspila, nahasketa'	«...hemen gertatzen diren anabasen ikerlanen ardura beronen gain utzirik.»	(48)
andeatu 'zirpildu, alferrik galdu'	«... andaturiko material leherkaria, alegia.»	(412)
antigalgai 'antigoaleko, antzinako gauza'	«...berriki antigalgaien bildumazale bati erosia...»	(138)
antzaldatu 'itxuraldatu'	« Antzaldatu zen erabat haren aurpegia...»	(281)
antzean 'igarri, jaso'	«—Beharbada, nausi, ez duzu oso ongi antzean nik adierazi nahi nizuna zera esan dudanean...»	(13)
apatiko 'axola edo arreta gutxikoa'	«...bere karakter abuliko eta apatikoarekin ...»	(65)
apeta 'guraria, nahiera'	«Piztia nazkagarri hauek noiznahi izaten baitute, itxura denez, txantxak egiteko apeta .»	(377)
apetatsu 'kasketaldiak dituen'	«...oso aiurri aldakor, apetatsu eta iheskorra omen baitu fraide gazte horrek...»	(128)
apika 'agian, beharbada'	«Norbaitek ebatsi zuen aspaldi. Herensugeak, apika .»	(280)
apreta 'abarketa, espartina'	«... apreta -zola baino zailago zegoen xerra...»	(401)




araokatu 'gaizki esan'	«...Herioaren mezulariak berriro araokatzera ?»	(145)
aratinik 'ahoz gora'	«...ohean aratinik etzana...»	(123)
arestian 'duela gutxi'	«...neure boza entzuten ari naiz, aresti-arestian neure buruarekiko bakarrizketan jaulki ditudan ariketa mnemotekniko berberak...»	(114)
argikusle 'begi zorrotza, buru argia'	«...baina, baina nolako azkarra, trebea eta argikuslea zaren!»	(257)
arrai 'alaia'	«...afari jangartsu baina gozoa, solasaldi sakon eta arraia ...»	(61)
arrail eginda 'birrinduta,sats edo zoko eginda'	«Lomba eta Juan Marirekin elkartu naiz: biak zeharo arrail eginda zeuden...»	(270)
arranditsu 'ikusgarria, gehiegizkoa'	«...nire urtebetetze-eguna "adornatu" duen "gertakari arranditsua "...»	(390)
arranpuila 'multzoka, esku beteka'	«...laranja saltzailera bat (...) laranja arranpuila botatzen hasi zitzaie...»	(25)
arrapaladan 'ziztu bizian,ahalean,arin-arin'	« Arrapaladan idazten dizut orain arte eduki dudana tarte libre bakarra aprobetxa- tuz.»	(22)
arrastelatu 'jorratu, aztarrikatu'	«Jorratu, arrastelatu , aztarrikatu.»	(256)
arrastelu 'eskuarea, eskutaila (tresna)'	«...bidexketatik belar txarrak kentzeko arrastelua pasatzea...»	(173)
arre 'lur-kolore iluna'	«...kaio bakan moko-hori batzu Urumeako ur arreen gainean zambiluka...»	(18)
artatu 'zaindu, jagon'	«...agian erditzeren bat artatzera abiatua dateke...»	(100)
artean 'oraindik' (lehen aldia)	«...ez ba, jauna, artean jakin ere ez genekien zer zen hori...»	(348)
asaldura 'aztorapena'	«Jaun Abade Priorearen bozak asaldura haserretuzko doinua dauka eta gogor durunditzen da abatetxeko bibliotekaren ganga altuan.»	(58)
asaskapen 'betekada, lasaitasuna'	«Nork bere buruaz barre egitetik sortzen den asaskapena , ulertzen?»	(172)
askoa 'oso, txit'	«...neska jator askoa duk...»	(262)
asperren 'gogaitasuna'	«...sekulako asperrena duk hau niretzat...»	(315)
astegun buruzuri 'astegun arrunta'	«Zer dela-eta meza astegun buruzuri batez?»	(263)
asturu 'patua, zoria, adurra'	«...baina nik ez dut asturuetan sinesten...»	(359)
ateka 'larrialdia, estualdia'	«...pentsa ezak Giovanni gaztetxoak aterako gaituela agian ateka gaizto honetatik...»	(207)
atetzar 'ate handia'	«...nola hersten diren atetzarrak ...»	(16)
atondu 'prestatu, apailatu'	«...komunitateko anaia sasi mistikoei orgia haragizkoetarako edabe zoragarriak atontzen dizkieten herboristak.»	(47)
atotsi 'gonbidatua'	«...Donostiako "gauche divine"aren bilkura guztietako izar atotsia ...»	(34)




atxeki 'eduki'	«Nik beti atxeki dut zureganako konfidantza.»	(322)
atxurtu 'mozkortu'	«Denak atxurtu dira, ni izan ezik...»	(388)
atzera 'berriz, berriro'	«...itsaspe ilunean linburtu da atzera .»	(256)
auhen 'erosta, negarrezko oihua'	«...besoak auhenetan bezala luzatuz eta bere buruari jirabiraka...»	(301)
aunadura 'unadura, nekea'	«...sumin eta aunadura sentsazio-nahaspila baten mendean.»	(263)
aurkientza 'tokia'	«...jarrai dezadan plano zaharretatik nire Agilulforen aurkientza non aurki daitekeen jakiteko ahaleginetan...»	(144)
aurrezantzu 'seinalea, premonizioa'	«...ausiabantza guztizko baten aurrezantzua -edo...»	(286)
ausiabantza 'nahastea, korapiloa'	«... ausiabantza guztizko baten aurrezantzua-edo...»	(286)
ausiki 'hozkada, haginkada'	«...maiatz topiko baten taupada odoltsuak eta loreen ausikiak ...»	(334)
ausikika 'haginkadaka'	«Maiatzeko loreak odolean ahausika eta ausikika .»	(335)
azkon 'gezia, dardoa'	«...hezurrezko azkon hau,Solutrense edo Disolutrense garaiko arma zorrotza...»	(349)
babo 'papaua, tentela'	«...horixe gertatzen zaik hiri, babo arraio halakoa...»	(206)
bafaka 'zaldien arnas botatze hotsa'	«Hemendixek dakuskit, moxal urdurien gisa zantzoka, bafaka , harrapataka, hemen usna eta han beha.»	(240)
baiza 'arrezife,sakonera gutxiko lekua'	«Argiak berpiztu ziren eta desioaren galeoia berriro itsasoratu zen, anartean ikatua zuten baiza eta hondartzetatik jalgita...»	(346)
bakan 'urri, eskas'	«...panpina bat edo beste ere bai, beren txima-jario bakanduekin ...»	(20)
balbea 'Herioa'	«Ez (...) liskar odoltsutan unatzen diren fraide zuhur-zoro eta jakintsu-ezjakin horiek bezala, Balbea .»	(126)
barbarin idema 'arrain mota' (salmonete)	«...arraultze frijituak eta barbarin idemak jatera...»	(166)
bardauskilo 'baldresa'	«..."baldragas" batzu ginela (...) " bardauskilo " batzuk...»	(205)
barrandari 'zelataria'	«...bazter guztietan neskatila barrandari bat sartua delako albistea.»	(141)
basta 'zela, zaldian montatzekoa'	«...mandoari bastak kentzen lagun niezaiola agindu dit.»	(173)
begi-zirritu 'irekidura txikia,begi erdi itxia'	«...bart arratsean lo-papera eginaz egon zela ohean begi-zirritutik leihora begira...»	(78)
behaketa 'begiratzea'	«Nobela modernoak auto- behaketaren bidez bere ni-a hainbat ni-zatitan bereizteko joera du...»	(6)
behinik behin 'behintzat, bederen'	«Halaxe irakurri nuen Triunfo-n behin, behinik behin .»	(264)
beiradura 'beirazko egitura'	«Negu-arratsalde honetako eguzki-errainu motelak ozta-ozta iragazten dira alabastrozko beiraduretan barrena...»	(50)




beirarasa 'beira edo kristalezko arasa'	«Ganbara zaharreko beirarasa hautsezatuetan...»	(334)
bekus 'ikus beza, ikus dezala'	« Bekus Berorren Eminentziak nola dagoen guztiz barneraturik...»	(55)
belagile 'aztia'	«..." belagilea " (halaxe deitzen dio Juan Marik: "hetxizeroa")...»	(266)
belaxka 'txepela, biguina'	«... "desenkanto"aren melodia makal- belaxka -okaztagarria.»	(104)
benatsu 'serioa'	«...gizon eta emakumeen begitarte benatsu zein alaiak...»	(129)
ber '(eraman) ezik'	«...baldinbetan, xaguzarrek beren kobazulo umeletara eraman ez nazaten ber .»	(15)
berantetsi 'berandu eritzi'	«...noiz itzuliko ote zaion berantetsirik dagoen produktu farmazeutikoen edozein saltzaile-mandatariren gisa.»	(100)
berriketa 'azakeriazko hizketaldia'	«Baina aski da berriketarik : altxa zaitetz.»	(98)
betegintzarre 'betetasuna, satisfakzioa'	«... betegintzarre -uneen eta abaildura-uneen artean...»	(79)
betizu 'basabehia (basati, hezikaitza)'	«...fraide gazte begiko hori, betizu baten gisa harantz eta honantz...»	(279)
betsein 'begi ninia'	«... betseinak goiko betazaletan ia erabat sartuak...»	(123)
bidaide 'bidaia laguna'	«...gurekin bidaide doazen andre-gizon, atso-agure, neska-mutikoen guztiek...»	(357)
bihotz-zimiko 'ziztada, sastada, zirrara'	«...ezin izan du oraingo honetan, ordea, halako bihotz-zimiko bat ekidin...»	(206)
binbilika 'mugimendu erritmikoa'	«...trenaren binbilika Urumea gaineko burdinazko zubi beltzean barrena...»	(18)
birao 'hitz gorria, madarikazioa'	«...eta Jaun Prioreak akar egin zidan birao egin nuelako...»	(73)
bisuts 'euri xehea'	«...harri landuzko abatetxe misteriotsu hau, laino eta bisuts artean ozta-ozta nabarmengarri.»	(124)
bizibarkakor 'gutxiespeneko, mespretxuzkoa'	«...halako mespretxu-boz bizibarkakor batekin...»	(242)
bolborategi 'sutaustegia' (polvorin)	«Ez nintzateke harrituko "Europako bolborategia " deitzen diotela jakinda ere.»	(164)
bolondres 'oldezko gudaria'(voluntario)	«...zortzi tipo entxufatu gaituzte lanera joateko, bolondres bortxatuak zortziok, noski.»	(265)
bozatu 'ahoa estali, musukoa ezarri'	«...joango al naiz salto batean, bide batez ondo lotuta eta bozatuta jarraitzen duen ikustera?»	(218)
burusi 'manta'	«...umearentzako sehaska, izaratxoak, burusiak , troxak eta arreo guztia erostera.»	(176)
damu izan 'garbatu, sentitu'	«...eta orduan nire kolaboratzaile ohiekin beste abentura ergel horri ekin ez izana damu duket...»	(15)
danbateko 'kolpe gotorra'	«...nola hersten diren zakarki atetzarrak, morroiloen kurrinka eta danbatekoa ...»	(16)
dardarizu 'ikara'	«...zarpail horien larridurak eta dardarizuak ere bost axola baitzaizkit.»	(201)




datxeko 'loturik egon, itsatsirik'	«Komisaldegi honetako beste gela bat, neu nagoen artxibogelari datxekona .»	(99)
deblauki 'egiaz / besterik gabe'	«...frai Arthur, deblauki eta solemneki eman nahi dizut abadagune honetan (...) gure ongi-etorririk bihozkorrena...»	(48)
deboilamendu 'nahastea, sarraskia'	«...gudalosteen inbasioak, deboilamenduak , estuproak eta izurriteak izan ezik, guk ez dugu deus ere ikusi.»	(121)
deboilatu 'suntsitu'	«...Wellingtonen tropek zeharo deboilatu ditene nire hiria...»	(365)
deitoratu 'pena hartu, pena sentitu'	«...pergamino-orrien marjinetan marraz nitzakeen irudiak ezin marraztua deitoratuz ...»	(132)
demagun 'eman, suposa, jo dezagun'	« Demagun (...) ni zine-zuzendari ajeatu eta langabezitu bat naizela...»	(11)
den mendrenik 'apur bat'	«...neuk markatutako bidetik den mendrenik ere alderatu gabe...»	(225)
deritza 'deitzen da'	«...Iñaki Arretxea Mugerzabal omen deritza , ezagutzen al duzu?»	(12)
desenkusa 'barkamena, barkazioa'	«...eta horregatik desenkusak aurkezten dizkio inoiz kronika zirtzil hau irakur dezan irakurlego prestuari...»	(64)
deslai 'soltea, abandonatua'	«...ahal bezain guztietan aitortzen zuen ardi deslai hark...»	(56)
destaina 'gutxiespena'	«Batzarre eraikitzaile bat izan dadila honako hau eta ez elkarri destainak egoztekoa.»	(18)
destatu 'apuntatu'	«Erne, gero, arma batekin destatzen ari natzaizu eta.»	(214)
dilingan 'zintzilik'	«...besoak izterren gainean baldarki eta eskuak belaunetatik dilingan utziaz batera.»	(203)
diraki 'irakiten du'	«...miopiak jotako begiak ditu, bixkorak hala ere, jakinminak etengabe dirakienak .»	(12)
dirdaitso 'distiratsua'	«Zer uste duk, heure hizkera dotore, dirdaitso eta itxuraz noble horrekin, engainatu egingo nauala?»	(67)
diz-diz 'distiratsua'	«... "txapelokerren zizpa luziak" Erretereria hiri ilun ketsuan diz-diz ...»	(347)
dohakabe 'zoritarrekoa, gaixoa'	«...han dakarte segundu gutxi barru mutil dohakabearen gorpua.»	(88)
doilorkeria 'bilaukeria'	«...Ejerzito espainol madarikatu honen doilorkeriaren aurrean.»	(268)
durunditu 'oihartzundu'	«Jaun Abade Priorearen bozak asaldura haserretuzko doinua dauka eta gogor durunditzen da abatetxeko bibliotekaren ganga altuan.»	(58)
dzangada 'tragoskada'	«Zahatoari dzangada bat eman...»	(24)
ebatsi 'lapurtu, ostu'	«Norbaitek ebatsi zuen aspaldi.»	(280)
ebatzi 'erabaki'	«...nik horretarako eskubiderik ez dudala ebatzi dutelako?»	(257)
ebazpide 'konponbidea, soluzioa'	«...laberintoko enigmaren ebazpidearen truke neure Agilulfo maitea berraurkitzen lagun diezadan.»	(140)
edabe 'edari berezia, arraroa'	«...komunitateko anaia sasi mistikoei orgia haragizkoetarako edabe zoragarriak atontzen dizkieten herboristak.»	(47)




ederretsi 'edertzat jo, eder eritzi'	«...barre egin dute, beren buru(zagi)aren zirtoari ederretsi -edo.»	(114)
egarberatu 'egarritu'	«...eurien kariaz alphore hezea darie han-hemenkako soro bakan luzaroan egarberatuegiei .»	(298)
egokiera 'eretia, aukerako unea'	«Pazientzia, baina, Teodora, pazientzia, iritsiko dun egokiera .»	(123)
egonarri 'eroapena, pazientzia'	«Dena dela, ez dezagun (...) egonarririk gal...»	(102)
egutera 'eguzki aldera dagoena'	«...etxe aberats zein pobreak, nahiz eguterak nahiz laiotzak...»	(129)
ehun 'oihala, hariz egindako tela'	«...gizakia ehundaka geruza dituen tipula da, milaka hariz osaturiko ehuna .»	(6)
ekidin 'saihestu, gertatzea eragotzi'	«...baina ezin ekidin dezaket...»	(104)
eldarnio 'sukar zorabioa, aluzinazioa'	« Eldarnio izugarritan murgildu beharrean.»	(270)
eleztatu 'mintzatu, solasean aritu'	«...abadagune gutxi baitugu soldaduekin eleztatzeko ...»	(121)
elkar-hartu 'ados jarri'	«Aldez aurretik elkar-hartuta zeudela bistan da.»	(14)
elkhi 'ilki, irten'	«..." elkhitzeko tenorea hunat nun den jina"...»	(17)
elkor 'antzua, fruiturik gabea'	«Barne-paisaia elkor ahantzia...»	(239)
endemas 'gainera'	«...kasualidadez gu bioi hain xuxen deitu beharra ere harrigarri xamarra dela, biok euskaldunak endemas .»	(37)
endredamakila 'iskanbila sortzailea'	«(—pst, Harrison-sky, ez nuke endredamakila izan nahi...»	(413)
ENGAGÉ 'konprometitu'	«—Pozten naiz, Nausi, halako batean idazle " engagé " izatea erabaki duzulako.»	(451)
epotx 'kakanarrua, ttipia'	«...Oskar Matzerath-Bronsky, Dantzig-eko seme epotx zenbaiten ustez, ordea, erraldoi naizena.»	(161)
eragon 'ihardun, aritu'	«—Ea ba, adiskide, esplika hadi— eragon dio ko-zuzendari teknikoak.»	(202)
eragotzi 'galerazi'	«—Eta nork eragotzi zion?»	(81)
eraikitzaile 'probetxugarria'	«Batzarre eraikitzaile bat izan dadila honako hau eta ez elkarri destainak egoztekoa.»	(18)
eraitsi 'esnea erauzi edo atera'	«Honek ikuilua dirudi eta guk eraitsi beharreko behi taldea...»	(26)
eraitsi 'bota'	«...paperezko kartzela honen harresi trinkoak eraistea ezinezkoa zait...»	(163)
erakan 'hegan kulunkatu'	«Pentsa ezak zer esango duten danborrarioren gainean beti ere zintzilik eta erakan egon ohi diren damoklestar ezpata-dantzariak...»	(400)
eraman 'jasan'	«Eta hori ezin dut eraman , horra.»	(201)
erantzi 'biluzi, erropa kendu'	«...begiratu bakoitzean erantzi egiten zutela baitzirudien...»	(69)




erasan 'esan erazia, esana'	«...biga, Burgosko epaiketa edo sententzia inpropioki erasana , hilaren azken aldera...»	(349)
erasi 'bota, gaineratu'	«(—eta puntu honetan Jaun Abadeak hain gogoko dituen zita horietako bat erasi zuen, frai Arthur...»	(80)
eraspen 'debozioa'	«Bekus Berorren Eminentziak nola dagoen guztiz barneraturik, begiak eraspen osoz hertsirik, eskuak bildurik...»	(55)
eraspentsu 'deboziaz betea'	«...zuek bezalako gizon zuhur, jakintsu eta eraspentsu batzuegandik ez bainuen horrelako sinominorik espero.»	(49)
eratzan 'etzan (erazi)'	«...eserita hago jadanik, eratzan ezak besaulkia...»	(225)
erauki 'errenditze'	«...baina berriro horrelako erauki -hitzik esaten baduk...»	(324)
eraunsketan 'behin eta berriro kolpeka'	«Zuri ez al zaizkizu etortzen (...) haurtzaroko kaio moko-hori hego-gris haietxek (...) karraxika eta eraunsketan ?»	(427)
erauntsi 'ekaitza'	«...oroitzapenen erauntsi hisiatu eta lauskitzaile horri amaiera eman diezaiozun.»	(319)
erauzi 'atera'	«...badakusat (...) nola erauzten dioten, kolkotik, alkandoraren azpian bere esku odoltsuarekin oratzen zuen koaderno moduko bat.»	(88)
eresi 'hil kanta, gai tristekoa'	«...buruan jirabiraka dabilkidan eresi zaharraren trikimailuei amore ematea...»	(30)
eri 'atzamarra'	«...eta nire esku bateko erhiak zure diti-puntak doi-doi ikuttu...»	(73)
eridele 'aurkitzailea'	«...polizia eta mafiaren arteko makina bat konexio zikinen eridelea ...»	(87)
eriden 'aurkitu, idoro, kausitu'	«Bera da egia eriden behar duena.»	(237)
erlabio 'liztorra' (intsektua)	«...(Zenbat hildako (...) aurkitzen genituen hurrengo udan, jolasten ari ginela, erlabio burrunbada batez estalirik!)...»	(121)
erlats 'eztul antzeko soinu zakarra'	«...neure neskatila-ahots sotila erlatsez inkariotuz...»	(125)
erpin 'muturra, punta'	«...jauregi eder bat gailur baten erpinean ...»	(99)
erreboilu 'arrain mota bat' (rodaballo)	«Ikusiko duzu: lanpernak, txipiroiak, makailoa, mixera, erreboilua ..., nahi duzuna.»	(196)
errekardaritu 'erregateoa, urrutatzea'	«Bitxia gertatzen da hemen (...) errekardaritze sistema.»	(135)
erremusinari 'erremusin biltzailea'	«Frai Abelardo duzu hori, komentuko erremusinari zaharra; ez zaiozu jaramonik egin.»	(49)
erretxin 'pirria, kakapirria'	«Jakina denez, idazle-jende erretxin horrek oso tratu txarra ematen baitigu...»	(161)
erroitz 'amildegia'	«...gaindituriko erroitzak ez baitira niretzat zorabiagarri izaten ...»	(125)
erronka 'harrokeria, desafioa'	«...beraz, hobe duzu erronkan ez hastea.»	(188)
erronkazale 'istilu bila dabilena'	«...sasi-zaldun erronkazale gehienak bezalaxe.»	(143)
esan gabe doa 'ez dago esan beharrik'	« Esan gabe doa gatazka aitzindari honetan gure erasoaren norabidea gehienbat "Laburbil" zutabeak markatu duela.»	(332)




esauntza 'esaldia, esaera'	«Hona, hona hemen neure ukabil eta letraz pergamino hauetara aldatu berriak, hainbat esaldi, esaera eta esauntza .»	(282)
eskerga 'itzela, handi-handia'	«...a ze tragediak gure Herriarenak, a ze odolustutzeko modua borroka gogor eskerga honetan...»	(68)
eskuar 'arrunta'	«(K.O.: kopista xume honek umilki aitortzen du ez dakiela azken esaldi misteriotso hori gure mintzaira eskuar rera itzultzen).»	(62)
eskueran 'lortzeko moduan'	«...Eguberritan permisoan joatearena eskueran daukat.»	(397)
eskuetsi 'eskuetan jarri'	«Gainera, zernolako ahalmenak eskuetsi dizkidazu?»	(277)
eskuzartada 'txaloa'	«Onespen-keinuen artean bukatu da lehen bilkura orokorra. Jaun Abade Prioreak eskuzartada pare batez eman du amaitutzat.»	(50)
eskuzartaka 'kolpeka'	«Gomuten amaraunak eskuzartaka apartatuz.»	(333)
estakuru 'desenkusa'	«Bistan da, edozein estakuru edo desenkusa adierazi izan banio...»	(282)
estalki 'azala, forroa'	«Udako erropak pertxetatik zintzilik, batzu plastiko gardenezko estalkitan bilduak...»	(20)
estolda 'isurbidea, hodia'	«...urbide-erreten eta estoldekin ...»	(414)
estraineko aldiz 'lehenengo, lehen aldiz'	«Atzo, harrapatu zenutenean ikusi nian estraineko aldiz ...»	(94)
estupro 'txikizioa, triskantza'	«...gudalosteen inbasioak, deboilamenduak, estuproak eta izurriteak izanez, guk ez dugu deus ere ikusi.»	(121)
etsigarri 'deprimentea'	«...pare bat hitzaldi irentsi behar izan zituztela (...) benetan etsigarriak ...»	(77)
eultzi 'gari jotzea, haizaratzea'	«...soro-lanak, eultziak , mahats-biltzeak...»	(121)
exegeta 'Bibliaren aztertzailea, jakituna'	« Exegeta bat nauzu neu ere.»	(59)
ez bat eta ez bi 'gehiago pentsatu gabe'	«...hauxe esan nion ez bat eta ez bi ...»	(284)
ez-esaneko 'desobedientea'	«...nagiena eta ez-esanekoena naizela diote.»	(155)
ezain 'itsusia, zatarra'	«...barkilo saltzaile ezaina ...»	(383)
ezari-ezarian 'astiro-astiro, emekiro'	«...besteak dirudienez ezari- ezarian egokituz baitoaz bizimodu honetara...»	(65)
ezein 'bat ere'	«...ez dagoela ezein herrialderik dotrina iraultzaile baten apostolu puro denik...»	(54)
ezkabiatsu 'azaleko gaisotasuna duena'	«Zakur zehatu, larrutu eta ezkabiatsu baten gisa, Graziaren paradisuatik iraitzia, Espainol Ejerzitoan hondoa joa...»	(58)
ezorduko 'ez ohizkoa, ordu txarra'	«...telefono dei ezorduko batek urrundu dion interlokutorea noiz itzuliko ote zain...»	(100)
ezpaldu 'hautsia'	«Buru ezpaldua , zirtzilatu, printzatu, hautsia.»	(243)
ezproin 'erpe zorrotza'	«...oilartxo-borrokak, paparralde gorria nork nabarmenago erakutsiko, ezproin horiztak nork zorrotzago...»	(288)




far-far 'hostoen soinua, mugimendua'	«...eta orduan nire eskua, far-far leun batean (...) hegaldatu egiten dela zure "marpoxaren" gainera...»	(73)
farfailtsu 'adornuz bete'	«...letra gotiko maiuskula farfailtsu baten zirrikitan barrena...»	(19)
fermuki 'irmoki'	«...aski da hipotesiak ia egia frogatuak bailiran fermuki aurreratzea.»	(279)
fier 'ausarta, adoretsua'	«...zaldun fier bat, zilarrezko armaduran sartua...»	(129)
firrist 'ukitu'	«...txori batek bere hegoarekin firrist egingo balizu bezala...»	(73)
fruta-muztio 'fruta ura, mostoa'	«Nik neuk dozena bat boteilatxo fruta-muztio edan ditut...»	(266)
ful 'jota, abaildua'	«...ordubete bakarrik utzi dietela libre goizean txerto antitetanikoa jartzeko, nahiko " ful " utzi duela...»	(71)
gaitz 'handia, eskerga'	«...mutilkozkor moro andana gaitza .»	(135)
gaitzets 'higuingarria, antipatikoa'	«Isiltasuna bi ko-zuzendari gazte gaitzetsak ...»	(218)
gaitzidura 'haserrea, sumina, indignazioa'	«Nahigabezko zurrumuru bat hedatu da entzuleen artean, gaitzidurazko barbaro bat.»	(48)
gakoa 'koska'	«Eta bai, badaiteke gakoa horretan egotea.»	(163)
gal-gal irakin 'pil-pil, irakiten'	«...patriotismoz gal-gal baitzirakien...»	(191)
galda 'bero handia'	«...uda-arratsalde sargoritsu honetako eguzki- galda badirudi ibitu egin dela piska bat...»	(14)
galdean 'galdezka'	«Sartu ginen delako sarjento Valentin horren galdean eta hantxe zegoen...»	(36)
galtzarbe 'besapea'	«...harroputz horietako edozein gure paperezko galtzarbeetan kilimakurrak egiten noiz hasiko ote zaigun...»	(161)
gangar 'baldresa, trauskila'	«Etxe aski berri baina era berean zarpaila da, gangarra , hezea...»	(20)
garizuma (Cuaresma)	«... garizuma baino luzeagoa ari dela gertatzen prorrogaren asuntoa...»	(77)
gatzaga 'gatz biltegia'	«...Erromako gatzagetako edo Auschwitz-eko harrobietako esklabuak bezalatsu...»	(187)
gatzundu 'gatzetan jarri'	«...sardina gatzunduen gisa...»	(161)
gaztainkara 'gaztain kolorea'	«...Marisaren ile leun gaztainkara ...»	(224)
geruza 'azal mehea, fina'	«...gizakia ehundaka geruza dituen tipula da, milaka hariz osaturiko ehuna.»	(5)
gibelasmo 'asmo txarra, okerra'	«Benetan galdetzen dizut, gibelasmorik gabe...»	(183)
gidaila 'hanka'	«—Ezer ez, zakurraren putza, gidaila eta bibolina, besterik ez!»	(186)
ginbaleta 'daratulua, zulagailua'	« Ginbaleta bidez ez bada, Enrico Fullini zuzendari gazte <i>amateur</i> gartsu eta abarri mintza araziko dion kristaurik (...) ez dagoela...»	(203)




gingail 'eztarriko kanpaitxoa'	«...segi aurrera, Harresky, egin beza gingailak zapart...»	(382)
girgilu 'kateadun burdinazko uztagailua'	«Hanketan girgiluak ipintzea falta zaiguk, bakar-bakarrik...»	(377)
goganbehar 'ardura'	« Goganbehar latza berau, arima arimak gainditurik sentitzen denean...»	(237)
gomuta 'oroitzapena'	«...pertsonek maitatuaren presentzia gomuta batera eta paperaren gainean idatzitako lerro batzutara mugatzen delako...»	(68)
grina 'desio bizia, pasioa'	«...zergatik azaltzen duk orain niri laguntzeko hainbesteko grina ...»	(66)
gristara 'gris kolorea'	«...uso gristara papurjaleak...»	(351)
gur-gur 'ron-ron egin'	«Eta eskola ondoko usategian, hantxe egoten ziren uso txuriak, gur-gur , urrumaka.»	(427)
gurenda 'garaipena'	«—Bai, gora gure Na(g)usia!, gurenda gurea da eta!»	(356)
guri 'biguina eta leuna'	«...deskripzio guri hori baino mila aldiz zakarragoak entzun behar izan zituen...»	(123)
gurtu 'alabatu, ohore eman'	«...(eta ez gu miretsirik edo gurturik edo...»	(162)
haboro 'gehiago'	«...\"aita jeloskor batek dizü kausatü, zure ikhustetik, haboro mintzatetik, hark nahi nizü pribatü\"...»	(103)
hainbana 'lain, enpate'	«...xake-partida hainbana geratu duk.»	(315)
hantuste 'handi ustekoa, harroa'	«...gure detektibe pribatu baldres baina hantuste honek mespretxatu egiten ditu ni bezalako subalternoak...»	(98)
haraindi 'bestaldean, urrun'	«...kristalaz haraindi \"euri lasai, euri triste, euri patxadatsua\"...»	(340)
harat-honatak 'joan-etorriak'	«...zoko usaindun azoka nabar horretako harat-honatak ...»	(240)
harramazkada 'erpakada, txatxamurkada'	«...haren besoen sinfonia hire lepoa inguratuz, haren harramazkada eta ximiko konbulsiboak hire bizkarrean...»	(222)
harrapataka 'arineketa'	«...bere izenik esateko asmorik ez al duen galdetzean, harrapataka erantzuten du...»	(24)
hats beherapen 'arnasa botatzea'	«Mihia klaskatu, buruari eragin eta hats beherapen irribarretsu bat egin ondoren, honela darrai frai Arthurrek...»	(49)
hatsartu 'gogoetatu'	«...\"egun bakoitzari gaua darraika, eginaz hatsartzeko , ez eginkizunarren kezkatzeko\"...»	(60)
hautsi-mautsi 'konpromezua, konponketa'	«Azkenean Jaun Abade Prioreak halako hautsi-mautsi batera erakarri gintuen...»	(72)
hazpegi 'aurpegiera'	«...nora mugituko duen alde zurretik ondo baino hobeto dakienaren hazpegi ikertezina erakutsiz...»	(280)
haztatu 'ukituz sentitu'	«...eta zu musuka jan, eta haztatu , eta amodio egin oldarrik ez zientekin...»	(154)
heiagora 'deiadarra, garrasia'	«...edota belar-epaile izerditsuen heiagorak eta meta-egile bulartsuen kantuak...»	(38)
heiagoratu 'heiagoraka aritu'	«...oihukatzen baginen ere (...) heiagoritzen baginen ere alferrik...»	(347)




helas 'ai!, ondikotz'	«...gaurkoan nire Mizifu gaixoa <i>plum cake</i> -rik gabe, helas , pentsatzen dut, Eskerrak Emateko Egunduz zinez txepela...»	(89)
heriosugartsu 'bizi, itsu'	«...eraman behar bahau,behintzat, borroka heriosugartsu baten ordainetan eraman hazala...»	(298)
herra 'hegigoa, aiherra, gorrotoa'	«Ridikuloz eta herraz beterik ikusi dut neure burua...»	(169)
herrestan 'narraz'	«...errauts hauek harraskako isurbidean behera xurgatuko dira ur-txorrotadak herrestan eramanak...»	(340)
hertsadura 'trantze estua edo une larria'	«...hasierako hertsadura hori askatasun iharduera gisa bizi izatera ere irits daiteke.»	(6)
hildura 'zigorra, mina, mortifikazioa'	«...saguzarrak eta ilunabarraren hildura ...»	(15)
hilduratu 'mortifikatu'	«...eta hor, hemen, dakusagu abaildua, uzkurtua, hilduratua ...»	(58)
hinki-manka 'dudatan'	«...beti beldurrak kateatuta, lotsaren atzaparren menpean, beti hinki-manka eta aldo-maldoka.»	(381)
hiribarren 'hiri barnea, barrua'	«...diotenez, hiribarrenak eta hirigibelak (...) negargarriak omen baitira.»	(134)
hirigibel 'hiri bazterra, ingurua'	«...diotenez, hiribarrenak eta hirigibelak (...) negargarriak omen baitira.»	(134)
hits 'tristea'	«...gauaren ilunberik hitsenetan murgildu eta horratx zer datorkien saritzat...»	(57)
hitz eta pitz 'kontu kontari'	«...hantxe egon ginen hitz eta pitz ...»	(138)
hitzartu 'hitz eman, agindu'	«—Oskar, hau ez da gure artean hitzarturik daukaguna.»	(459)
horratx 'horra hor'	«... horratx : kale kantoi horretatik bueltan...»	(30)
hurrupada 'zurrupada, zurrutada'	«...neure pipermin "frappé" berdeska izoztu honetatik hurrupada bat edan...»	(13)
hustiratu 'profitatu, landu'	«...nik azken ondorioetaraino ustiatu dudana.»	(280)
hutsal 'balio gutxikoa, garrantzi gabea'	«Lan hutsala da hura oroiterazi nahi izatea...»	(9)
hutsetsi 'falta nabaritu, sentitu'	«Bolada honetan hutseten omen du inoiz baino gehiago bere ama...»	(176)
ibitu 'iragan, igaro, joan, pasatu'	«...uda-arratsalde sargoritsu honetako eguzki-galda badirudi ibitu egin dela piska bat...»	(14)
idus 'martxoaren 15a'	«...martxo hartako idusetan mutil soldaduari (...) idatzitako gutunean zenbait datu aipagarri egon bazegoela...»	(102)
ihalozkatu 'iraulkatu, basatzen lohitu'	«O, bere gorotzetan ihalozkaten den <i>homo sapiens</i> harropuzaren itsukeria!»	(66)
ihardoki 'aurre egin'	«Eutsi, ihardoki , jazarri...»	(267)
iharrotsi 'astindu, hankaz gora jarri'	«Gure ordenak (...) Kristandadea iharrosten duen barbarokeriaren izurritearen erpeetatik (...) begiratzearen (...) ardura dauka...»	(59)
ihaus 'narritatua, exzitatua'	«...oihuen ordeztu, xuxurla antsiatu batzu entzun baititut, arnasestu lizun eta ihaus bat...»	(141)




ikatu 'trabatu'	«Geldi zaitetz zu hemen, ametsaire hutsezko nagikeriatan ikaturik , horretan plazer baduzu.»	(14)
ikezuzko 'bolanteduna'	«...gona ikezuzko neskabila xarmangarria...»	(99)
ikorzirin 'eskuetako gogorrunea'(callo)	«Kriston ikorzirinak atera zaizkit eskuetan...»	(187)
ikuzi 'garbitu, xahutu'	«...bazter guztiak detergentez eta espartuz ditzirante utzi arte jo eta ke ikuzten iharduteaz gain...»	(35)
ildotu 'bideratu'	«...bertan bizi diren arrain-espezien artean eta berau ildotu izan duten giza jende eta zibilizazioen artean.»	(131)
ilunabar 'iluntzea, gautu aurrettoa'	«...saguzarrak eta ilunabarraren hildura...»	(15)
inkariotu 'txurizkatu, disimulatu'	«...neure neskabila-ahots sotila erlatsez inkariotuz ...»	(125)
inkimanka 'haserrea'	"Eta borroka egin dut, inkimanka latzean."	(140)
intsuldatu 'hustua'	«Arimaren odola. Odol intsuldatua . Odol odolostua.»	(334)
ipurtxuntxurreko 'ipur hezur puntakoa'	«...horrelako murgarik aipatzen badidak, Harresky, ipurtxuntxurreko bat joko diat ostikoz eta dinbili-danbala joango haiz...»	(451)
iradoki 'nolabait aditzera eman'	«Nonbait, horren posibilitatea iradoki ere egiten zitzaigunez...»	(25)
iraitzi 'jaurtiki, bota'	«..."gizakia existentziara iraitzitako izakia da"..."»	(335)
iraungi 'indarra galdu, amaitu'	«...Marco Polo ere aspaldi iraungi zen...»	(132)
iraungikortasun 'amaiera, kaduzitatea'	«...sardina gatzunduen gisa, eta gainera (...) azalean iraungikortasun -data marka- turik.»	(161)
irazeki 'biztu'	«...komentu-gaztelu honetako horma hotzetan irazekita gelditu ohi diren zuzi horietakoren baten argipera inguratu...»	(126)
irazkin 'azterketa, oharra'	«...gutako batek irazkin luze bat egin zuen...»	(66)
irendura 'zikiraketa'	«...ordaindu behar zaien poliza, ordea, garestiegia da: irendura , bizi-pozaren galera.»	(466)
irisazio 'irisapena'	«Nakarezko irisazioak itsas bizkar malguaren gainean...»	(298)
irmo 'trinkoa, sendoa, gogorra'	«...irmo begiratu eta irmo bota dit desafioa...»	(13)
irri-karkara 'barre algara'	«...orain arte irriño doi-doi destainakor zena irri-karkara bihurtua da Fillinirengan.»	(203)
irrikitan egon 'gogo bizia izan'	«Ni zuri laguntzeko irrikitan nago.»	(68)
iseka egin 'trufatu, burlatu'	«...edonor horrek iseka egingo dizu, lagundu beharrean...»	(279)
istil 'putzua, potxingoa'	«...harea istiltsuetan hondoratuak.»	(334)
itsasturu 'itsasgizona, nabigantea'	«... itsasturu batek bitakora-kaierean zehazturiko bidaia zaharren ikerketatik norabide berrien aztarrena somatzen duen modura...»	(141)




itsumustuka 'haztamuka, itsu-itsuan'	«...itsumustuka gutun irekitzeko labana zorrotzaren bila dabil...»	(207)
ixkin egin 'despistatu'	«Azkenean ixkin egin ahal izan diot...»	(141)
ixtailu 'ixteko gailua'	«...gerrikoko ixtailuari distira atera...»	(146)
izarniatu 'distira eman'	«...katu basatien begiak soilik izarniatzen direneko orube ilunbetsu bat...»	(89)
izialdura 'ikara'	«...gizon itxuraz sendo ustez gordin honen bihotzera izialdura ...»	(15)
izterkloka 'arretriko, arre kikilito'	«...neska ile-laburtxo zoragarri bat mutil bizardun "enragé" baten sorbalden gainean izterkloka eseria...»	(334)
jaiera 'debozioa, joera'	«...hamaika gauza zeudek benetan garrantzitsuak (...) hala nola Jaungoikoarenganako jaiera ...»	(306)
jalgi 'irten, atera'	«...nire maisu frai Abelardoren begiek bere onetik jalgi behar zutela zirudien...»	(73)
jangartsu 'urri, eskas'	«...afari jangartsu baina gozoa...»	(61)
jauki 'egin'	«Ez dezazula gorilez inguratua joatearen errorerik jauki , zeren bestela, badakizu, inoiz ez nauzu topatuko. Agur.»	(93)
jaukikapen 'eraso'	«— Jaukikapen gisa hartu behar al ditut zure hitzak?»	(59)
jautsiera 'jaitsiera'	«...itsaspeko arroka batek geldierazi baitu gure jautsiera .»	(272)
jazargo 'kontradikzioa'	«Hots,bi fase aski garbi eta bereiz, biak herria asaldura eta jazargo -leherdura bortitzez markatuak.»	(349)
jazarri 'haserre egin, haserre jarri'	«...eta horren kontra jazartzen bada...»	(76)
jazarrika 'segika, jarraiki'	«...xuxurla antsiatu batzu entzun baititut, arnesestu lizun eta ihausbat, nire atzetik jazarrika zetorkidala...»	(141)
jendilaje 'jendaila, jende txarra'	«Nahiko ordu extra sartzen ditut, eta debalde, jendilaje honen zerbitzura.»	(263)
jin 'etorri'	«Etzitiala jin harzara nigana...»	(347)
jitoan 'galduta, hara-hona, noraezean'	«...orain idazten ari zarena, alabaina, iparrrik gabe dabilkizu jitoan , ene Agilulfo maitea...»	(144)
jobalte 'ohola, jarlekua'	«...kainoiak kadena eta jobaltetan prest...»	(346)
joran-etsi 'desiratu, irrikatu'	«...ez dut ez joran-etsi , ez mespretxatu...»	(148)
jorratu 'arrastelatu, aztarrikatu'	« Jorratu , arrastelatu, aztarrikatu.»	(256)
kaimingain 'espoioia, malekoia'	«...oraindik piztuta zeudek Club Maritimoko argiak hantxe, kaimingainean ...»	(311)
kale egin 'huts, sasieskola, piper egin'	«Gaur, urtarrilaren 27an, kale egin duela akademiara...»	(35)
kalpar 'gangarra'	«...oilartxo borrokak, paparralde gorria nork nabarmenago erakutsiko, kalpar gorria nork tenteago...»	(288)




kamuts 'ergela, leloa'	«...mututasuna aho biko ezpata izan zitekek: jakinduriarik sakonenaren adierazgarri edota (...) sorgortasunik kamutsenaren .»	(358)
kanpix 'idurikor, aierukor, erretxina'	«...baina nahiko tipo kanpix eta txirripistina izaki delako kapitain hori...»	(97)
kanpix 'aspergarria, gogaikarria'	«...lagun min guztiak bezala, ordea, hain sarritan jasanezin, kanpix eta astun iruditzen zaidana.»	(12)
kanpixkeria 'tentelkeria, txepelkeria'	«...hurrengoan ez dakiala burutik pasa ere egin filmazioa hire kanpixkeria horiekin eteten hasterik.»	(17)
kantitu 'urragarria, segurantza gabea'	«...boz doi-doi kantitu batez adierazi zien <i>scriptorium</i> ondoan zeuden habito zuridun arrotzari eta habito belzdun etxeakoari...»	(82)
karkax 'erruxa, txistu...'	«...egun osoa lurrera karkaxak botatzen pasa ohi duena...»	(112)
karrankari 'hotsa, soinu gogorra'	«Lokomotoraren ziztua, eta trena (...) iharrosten duen abiatzearen sakada karrankaria .»	(16)
karsoildu 'garbia, ezer gabea'	«...gaztelu inguruko muino karsoilduen paisaia...»	(298)
kaskasoildu 'ile gabetzea, txiki moztea'	«Meza ondoren kaskasoiltzea : kalabaza berdea dirudit.»	(31)
katramila 'nahastea, arazo nahasia'	«... katramila hau interesgarri bihurtzen hasia duk...»	(82)
katxubar 'Poloniako alemana'	«...are gutxiago prusianoa, katxubarra bainaiz...»	(190)
kera 'keinua'	«...Jaun Priorearen aurpegian etsimenduzko kera mingots bat isladatu da...»	(59)
kilikagarri 'deigarria, erakargarria'	«...bere sinadura eta ohartxo kilikagarri bat.»	(12)
kilimakur 'zirriborroak / kili-kiliak'	«...paperezko giltzarbeetan kilimakurrak egiten noiz hasiko zaigun...»	(161)
kimatu 'inausi, adaskak moztu'	«...aihenbelarrak kimatzea , eta hola.»	(173)
kinka 'egoera, ateka'	«Ea, Harresky, kinka larriagoetatik ere onik atera haiz eta...»	(95)
kinkun 'erlatsua, garbia ez dena'	«...poeta ahots kinkun batek kantatua.»	(172)
kiribil 'gerezi txurtena'	«...otarre batetik gerezi bat hartu eta honek kiribiletik beste bat eta beste bat...»	(181)
kiribilkatu 'biribilean bildu'	«...bi emakume-izen horien inguruan kiribilkaturiko zirkulo antziatsu batzu...»	(105)
kirik egin 'beha egon, so egin'	«... kirik egin du kristal lodiaren atzekaldetik (..) zernahi motatako arrain aleren batek.»	(271)
kirik-gordeketan 'ezkutaketan, joko modu bat'	«...nire laberintoko barnebideetan itzulinguruka, laster eta labainka, kirik-gordeketan zabilzatenok.»	(321)
kirimilatu 'kirrua, kiribildua'	«...gizonak ile urdin ederra du, kirimilatua , "gran señor" itxura...»	(220)
kirrinka 'hotsa, soinua'	«...nola hersten diren zakarki atetzarrak, morroiloen kirrinka eta danbatekoa...»	(16)
kizkurtu 'kiribildua, bildua'	«...eserita ez, hondoratua, poter eginda, kizkurtua .»	(23)




klaskatu 'irentsi'	«Mihia klaskatu , buruari eragin eta hats beherapen irribarretsu bat egin ondoren, honela darrai frai Arthurrek...»	(49)
konddar 'hondarra, arrastoa'	«...kaka-mokordo txiki batzu ematen dutela, nere gazteluaren konddarrak ...»	(185)
kontaezin ahala 'ezin kontatuzkoak, infinitoak'	«...baina han bizi diren arimak ez dira bi edo bost, kontaezin ahala baizik...»	(5)
kordokatu 'ziurtasun gabea'	«Eta segitu du, boz aski kordokatuaz segitu ere...»	(12)
kosta ahala kosta 'edozer kostatuta ere'	«...jaso egin nahi zituela kronikan, kosta-ahala kosta ...»	(81)
kota 'biltokia'	«...oilategi- kota batek baino zikinkeria gehiago zuten...»	(147)
krosko 'kaskoa'	«Bihotzaren taupadak ontziaren kroskoan leunki lehertzen diren uhinen konpasean.»	(218)
krubixet 'beztidura, oihal mehea'	«(—gaueko andere zurbila... krubixet zuri batez estalia...»	(382)
kuita 'nekea, zorigaitza'	«Bere kuitak kontatu dizkit, Ejerzitoan klasismo asko dagoela eta hola.»	(80)
kukulumutxu jarri 'kukurizka jarri, makurtu'	«...eta makurtu da, kukulumutxu jarri da, eta arpegia nere arpegiyan aurrian daka orain...»	(185)
kutixia 'gauza desiragarria'	«...bidali didazuen pakete bikain horretako kutixia guztiak denon artean ziztu bizian agortu genituelarik...»	(391)
kuxidade 'zoritxarra, desastrea'	«Aladinoren kriseiluaren mirariaren zain egon behar beti, hau kuxidadea ...»	(161)
kuzkurtu 'kiribildu, batu-batu egin'	«...hantxe kuzkurtu naiz, bidoi baten atzean...»	(89)
kuzkuzero 'nontzeberria, jakin guratsua'	«... kuzkuzeroak uxatzeko (...)patruila-kotxeetako sirenak berriro martxan abia- razteko agindua eman berria duen arren...»	(89)
labur-zur 'labur-labur'	«...Iñaki Arretxea Mugerzabal gure informatzaileak (hemendik aurrera, labur-zurrean , I.A. izendatuko duguna)...»	(25)
lagun min 'oso, bihotzeko laguna'	«...honako lagun min hau, lagun min guztiak bezala, ordea, hain sarritan jasanezin, gogaikarri, kanpix eta astun iruditzen zaidana.»	(12)
lain 'beste, adina, bezanbat'	«Gutxiago falta zait pisu baten sarrerarako lain izateko.»	(111)
laiotz 'ainubea, ozpela'	«...etxe aberats zein pobreak, nahiz eguterak nahiz laiotzak ...»	(129)
lakar 'latza, leuntasunik gabea'	«...soinean "fratrum minorum"en ordenako habito lakarra jantzirik...»	(124)
lanturu 'negarra'	«... "gentleman" dekadente baten lanturu lanbrotsuak hausnartzen.»	(243)
lardaskatu 'maluskatu, alferrik galdu'	«Literako ixkina batetik eskegita daukagulako eta horrela (...) beti ere ikutu eta zertxobait lardaskatu egiten direlako.»	(136)
larmintz 'azala'	«... larmintz zuri-zuria eta urrezko adats batzuk...»	(363)
larrain 'zolu leun eta irmoa'	«... larrain -eguteretako aizkora biluzien antzekoak...»	(341)
larrutu 'larrua kendu'	«Zakur zehatu, larrutu eta ezkabiatsu baten gisa, Graziaren paradisutik iraitzia, Espainol Ejerzitoan hondoa joa...»	(58)




lastaira 'belarrezko jergoia'	«...afari jangartsu baina gozoa, solasaldi sakon eta arraia (...), zeldako lastaira eroso...»	(61)
laukitu 'egokitu, sartu'	«Besteak beste, delako "agure likits" hori ez baitaiteke definizio horretan laukitu ...»	(383)
lauskitu 'igurtzi'	«...zola behin eta berriro lauskitzen ...»	(35)
lazafrin 'garfiodun asta luzea'	«... lazafrinarekin jasoko likek kubiarta gainera...»	(329)
lekaime 'moja'	«Ni (...) sor Teodora naiz, San Columbianoaren ordenako lekaimea .»	(121)
lika 'ore likina'	«... likan trabaturiko txolarre baten gisa...»	(94)
likits 'lohia'	«...derrepente hemengo errealitate likits honetara "lurreratu" behar berriro.»	(136)
limurtu 'konbentzitu'	«...ez kezkatzeko zioetan, limurtuko duela kapitain hori...»	(97)
linburto 'murgildu'	«...itsaspe ilunean linburto da atzera.»	(256)
lirdingoso 'lirdingatsua, likitsua'	«Eta zuretzat errai lirdingoso horiek kutixia bat direla gogoratzea ere...»	(35)
lo-suma 'lo arina'	«...Ama Lurraren babesean lo-suma bat egitera...»	(364)
logale 'logura'	«... logaleak derrepente hilda nago eta...»	(72)
lokamuts 'amets gaiztoa'	«...eta hamabost egunetan lokamuts guzti honetaz ahaztu egingo naiz.»	(214)
lorratz 'aztarna'	«...hainbat gizurde-saldo itsasontziaren lorratzaren inguruan jauzika.»	(131)
lur-zohi 'belarra duen lur puska'	«... lur-zohi batzurekin txabola xume bat estaltzen ari...»	(281)
mahuka 'manga'	«Begira beza Berorrek: aski dut beronen habitoaren mahukari teink egitea eta...»	(56)
mainak egin 'negar zotinak egin'	«...nik amuari kosk egiteko mainak egiten ari...»	(81)
malmeti 'alteratu, kezkatu'	«...ez, mesedez, ez zaitzezela malmeti , ez nazazula bakarrik utzi alarma-patio honen erdian...»	(430)
MANU MILITARI 'militar eskuaz, indarrez'	«Irtenbide bakarra diagok: " manu militari ", etsaiak gure oreka suntsitzeko erabiltzen dituen arma berak geuk ere erabiltzea...»	(323)
marpoxa 'alua'	«...eta orduan nire eskua (...) hegaldatu egiten dela zure " marpoxa "ren gainera...»	(73)
maskar 'atsekabeturik, larri'	«Ikustekoak ziren militartzarren zirkunstantzi aurpegikerak, denak maskar , denak atsekabeturik baileuden.»	(454)
matraka 'zalaparta, eztabaida'	«...berak mesedez halakorik ez aipatzeko eskatzen zion arren, beti itzultzen zela (...) matraka berberera...»	(41)
maxkal 'biguina, ahula'	«Zer egin,ordea, gure urpeko ontzi maxkal honetara hurbiltzen direnak...»	(271)
mazal 'atsegina, leiala'	«...haren irribarre mazala ...»	(222)




mehar 'estua'	«...Europako zoko mehar bateko —Basque Country-edo omen du izena, baina ez izana...»	(101)
men egin 'kasu egin, esana egin'	«...harantz eta honantz inori men egin gabe dabilena.»	(280)
miatu 'arakatu, ikertu'	«...badakusat nola miatzen duten mutilaren gorpua.»	(88)
mirabe 'otseina, zerbitzaria'	«...prostituiko naute, mirabe zantar dohakabe baten gisa...»	(141)
mitxigo 'txori mota'	«... mitxigoak dabilta hegada bizi eta zoroan, elizako kanpandorrear jirabiran...»	(14)
mizkin 'gozozalea, errefinatua'	«Ez dakit ni neu ote naizen mizkina ala beraiek zakarkote potrosoak...»	(388)
mnemotekniko 'gogoratzeko,oroime. finkatzeko'	«...Polizi Akademian irakatsi zizkidaten erregela mnemotekniko ez oraindik trebeki moldatzeko gauza naizela egiaztatzea.»	(97)
morroilo 'burdinazko barraxoa,kandatua'	«...nola hersten diren zakarki atetzarrak, morroiloen kirrinka eta danbatekoa...»	(16)
moxal 'behorkumea' (potrillo)	«Hemendixek dakuskit, moxal urdurien gisa zantzoka...»	(240)
mozkote 'laburra, txaparroa'	«...mutil beltzaran argal hezurtsuaren artean doan mutil mozkote eta lodikoteak zahatoa atera du...»	(23)
mugarri 'mugak zehazteko harria'	«Ezinezkoa duk (...) mugarriak tinkatzea, Arthur...»	(300)
muger 'leuna ez dena, maldatsua, latza'	«...mendi muger honen gailurreko zabaldian...»	(124)
mukuru 'topeetaraino, ezin beteago'	«...eguzki-errainu motelak ozta-ozta iragazten dira (...) pergamino zaharrez mukuru betetako "scriptorium"aren gainera...»	(50)
muxin-aurpegi 'protesta aurpegia'	«...haren muxin-aurpegia , haren ezaxolati-planta...»	(363)
muxinka 'negar mainaka jarri'	«Nire izena baino letra handiagotan azaltzea nahi huelako al habil muxinka ?»	(21)
narraskeria 'lizunkeria'	«...garita horri buruz esaten dituzun narraskeriei .»	(153)
narrats 'arrunta, baldresa, ganorabakoa'	«...erabat narratsa ere ez den zertzelada bat eransten.»	(26)
neofito 'hasberria'	«...doktrina fedegabe eta materialista horretako neofito sutsu...»	(56)
nerabezaro 'gaztaroa'	«Gogoratu ditut nire haurtzarora, nire nerabezaroa ...»	(147)
neureak eta bi kostatu 'ahalegin handiak kostatutakoa'	«Hiru bozeto eraman nituen Iturrizaren klaserako, hiru bodegoi, beraiek erditzea neureak eta bi kostatakoak.»	(111)
NON PERTINET 'ez dator kasura'	«—Jaun Prioreak non pertinet esan zuelako.»	(67)
ñaño 'epotxa, kakanarrua'	«...sonbreilu hego-makurreko tipo ñaño mingots zigarro erretzaile erdeinukor hori...»	(240)
ñirñirkari 'distirakorra'	«...hiri eta kai arrotz haietako argi ñirñirkariei begira...»	(298)
ogi zerutik etorria 'maná'	«...begi urdindun puntutxo marroi hura hire zain dagoen ogi zerutik etorria izango baituk...»	(225)




ohi 'izandakoa'	«...nire kolaboratzaile ohiekin beste abentura ergel horri ekin ez izana damu duket...»	(15)
ohoin 'lapurra'	«...gu hemen hizketan ari garela gaua ere, " ohoin isilkari hori" (...) gainean dugu, frai Arthur.»	(60)
oilarite 'kukurruku ordua'	«Horretan saiatzen gara komunitateko anaia guztiok egunero oilaritetik arratsera arte...»	(59)
oka eragin 'goragalea sorterazi'	«...egunero oka eragiteraino irentsi-erazten dizkiguten telefilme <i>yankee</i> horietako edozeinetan agertzen den heroia naizela.»	(87)
okotzeko zuloraino bete 'bete-bete egin'	«...baina fanta, coca-cola eta holakoez okotzeko zuloraino bete naiz.»	(127)
oldar 'indarra'	«...eta amodioa egin oldarrik eztienearekin, bizitza amorraziorik sukartsuenarekin irentsiz...»	(154)
oldartu 'abiada handiz bota bere burua'	«...eserita zaudelarik oinetara oldartzen baitzaizkizu elkarrekin borrokan...»	(30)
ondikotz 'zoritxarrez'	«...(ondikotz, inebitableki, "ez baikara bi mendetako")...»	(332)
ondoezik 'gaizki'	«...piska bat ondoezik nengoela esanaz...»	(130)
opaldu 'oparitu'	«...gure Aita Jaun txit prestuak hemezortzi urte bete nituenean opaldu zidan zilarrezko katea...»	(123)
ordeka 'zelaia, lautada'	«..."ordeka zabal bat"..."»	(26)
ordots 'txerri arra'	«Burgabendua eta Ordots Likitsaren aurkako borroka amorratua...»	(347)
ordutzar 'beranduko ordua'	«Lau larunbatetatik behin juerga bat egin ohi diat goizaldeko ordutzarrak arte.»	(410)
orroekari 'marrumakaria'	«...itsaso beltz orroekariak inguratzen gaitu...»	(244)
orube 'esparrua'	«... orube huts bat, txatarraz betea...»	(89)
oskoltzar 'azal handia'	«Nik pentsatzen nuen intxaur- oskoltzar baten kubiartan...»	(131)
ospa egin 'hanka egin, alde egin'	«Eta Mastroinetxeak ere ospa egin al du?»	(204)
otu 'bururatu, burura etorri'	«Gainera, hilaren 27an bazatozela esan zenidatenetik, ez zait ezer otutzen .»	(111)
otxan 'apal, umilki'	«...erantzun behar izan duela otxan-otxan bildots baten gisa...»	(77)
ozar 'lotsabakoa, mutiria'	«Eta hik, Fillini, Hitzaren amorante ozar harrosko horrek?»	(355)
ozarkeria 'lotsagabekeria'	«Bistan da etorkinaren ozarkeria ez dutela batere ongi kausitu.»	(48)
ozpeltsu 'ainubea, laiotza'	«Beno, barkatu pasarte ozpeltsu hauek eta ea zerbait animatuagorik kontatzen dizudan.»	(38)
ozpindu 'garraztu, mindu'	«...mahai huts honetan edari garratz ozpinduak edateari emana...»	(15)
pagotxa 'hirusta, zori/zorte ona'	"...eta akabo nire pagotxa , abuztura arte-edo..."	(188)




palast 'ur kolpea, mugimendua'	«...olatu niminoen palasten marruma iristen duk hire belarrietaraino...»	(301)
palastadaka 'ur kolpeka'	«... "31 de Agosto" kalea palastadaka uholdekatua...»	(333)
palinpsesto 'eskuizkribu zahar ezabatua'	«...baina orri zuri esanguratsuen palinpsesto a eraiki dezakegu.»	(322)
pamerial 'iratxoa'	«...arras ezaguna dut demonio pamerial hori...»	(247)
panpota (esanahi zehatzik gabeko hitza)	«Ez dakizu nola nagoen, panpota baino harroago.»	(212)
paratu 'prestatu, atondu'	«...platerak, eltzeak eta ixtorioak garbitzen, mahaiak paratzen eta jasotzen...»	(71)
pasamoduko 'dexente'	«...afari bat izan ere nahiko pasamoduko a...»	(132)
patu 'zoria, adurra'	«Ikaragarria da gure Herriaren patu latza.»	(375)
peskiza 'bilaketa'	«...ama-lur itsaspetuaren taupaden peskizan ...»	(253)
peto-peto 'eredua, bete-betea'	«...tipo flakosta luze bat, andaluz peto-peto a.»	(36)
pindar 'zatiki gorria'	«...mintzo zaharraren deiadarra eta odol zaharberriaren pindarra elkarri jazartzen baitzaizkio.»	(347)
piper egin 'ez agertu / sasieskola egin'	«...ofizinatik piper eginez ...»	(194)
piura 'itxura'	«... "gure gizarajo- piuraz kupituta seguruenik" ...»	(25)
plural maiestatiko 'errespetuzkoa, <i>Gu ni</i> -ren ordezt'	«"Diagu" esan du, pluralean, eta ez dut uste plural maiestatiko a denik...»	(101)
ponperia 'dotorea baina balio gabekoa'	«Baina ni ez naiz poeta-jendilaje kasta belaxka horretakoa eta ez dut denbora alferrik galduko ponperiazko hitz hutsekin.»	(118)
ponpezia 'gehiegizko dotoretasuna'	«—Ai ene, Oskar, horrelako ponpezi az mintzatzen hasten zarenean, ez da oso seinale ona izaten.»	(458)
potakarra bota 'txahala bota, oka egin'	«Esan gabe doa berehalaxe joan naizela..., en fin, potakarrak botatzera .»	(388)
potor egin 'kiribildua, batu-batu eginda'	«...eserita ez, hondoratua, potor eginda , kizkurtua.»	(23)
potzolo 'itzela'	«Hainbeste kilatedun hitz potzoloen atzean protagonistak ezer ulertzen ote zuenentz...»	(104)
printza 'puska'	«...txirrita kantua diruditen baina zinez urretxindorrarenak ere badiren bertso- printza haiez josiak.»	(282)
pulamentu 'ganora' (fuste)	«Oso ondo lo egin dut, bero dexente egon arren, eta ez dutxatzeko ez pulamentuz garbitzeko astirik izan ez baguenen ere...»	(133)
purrustada 'protestak'	«...beti sortzen dira kontrako purrustadak .»	(191)
putzil 'petrala, nazkagarria'	«—Bada, Jaun Priore pur.—Jainkoak barka biezat— putzil horrek...»	(73)
putzilero 'mesprezugarria'	«...bihotz-errebista kakazu horietakoren bateko erreportero putzileroen bat...»	(204)




puzkar 'uzkerra, putza'	«... "Rocinante" kuttunaren puzkarrik usaindu beharrik gabe behintzat...»	(390)
sakada 'abiatzeko, irteerako bultzada'	«Lokomotoraren ziztua, eta trena (...) iharrosten duen abiatzearen sakada karrankaria.»	(16)
sakaildu 'suntsitu, hondatu'	«...lehenik korrika eta gero zuek zerraldo eta sakaildurik zeneramatenean.»	(94)
satsu 'lohi-lohia, zikin-zikina'	«...santu ustezko abade satsu hau...»	(141)
segada 'ustegabeko eraso, tranpa'	«...bataren eta bestearen jarraitzaileen arteko segada maltzurak, sesio ekaiztsuak, borroka odoltsuak...»	(47)
segailtasun 'liraintasuna'	«...—bikiak dirudite: segailtasun berbera, goi-behe berbera...»	(114)
sits 'bipia, intsektu zur, ehun...jalea	«... sitsa hasia zaigu liburu zaharrak hondatzen.»	(50)
sopikun 'partehartzailea' (cómplice)	«...bere lizunkeriazko grina gaiztoen jomuga eta sopikun zen Evaren beste harako alaba...»	(56)
soraio 'sentiberatasunik gabe'	«...egiazki nengoen espaziotik oso urrun ibili naiz, inguratzen ninduenarekiko erabat soraio .»	(147)
soraioki 'nagiki'	«...arbola baten gerizpean soraioki eserita...»	(99)
sorgor 'geldierazlea, paralizantea'	«...harridura sorgor hori ametsetan egon eta gauzak aldi berean kanpotik eta barrutik ikustean sentitzen dugunaren parekoa da...»	(29)
soslai 'perfila'	«...niretzat sentsazio "grisen" multzo bat da, objektuak soslai eta ingurune zehatzez ikustea eragozten didan halako miopia bat.»	(154)
sotil 'dotorea, ederra'	«...neure neskatila-ahots sotila ...»	(125)
sotiltasun 'adeitasuna, dotoretasuna'	«...bere eskuizkribuari darion sotiltasunean eta abar somatu uste izan dudanez.»	(12)
SURSUM CORDA edonor (Definitu gabeko norbait	«...entrebistatuko dela (...) baita sursum corda -rekin ere nire prorrogaren alde.»	(137)
tamalgarri 'penagarria'	«...erabateko oker tamalgarria jaukitzen ari zara...»	(67)
tarrapatana 'leloa'	«...parte hau upelen tarrapatana litzateke...»	(165)
teink egin 'tiratu'	«Begira beza Berorrek: aski dut beronen habitoaren mahukari teink egitea eta...»	(56)
tematu 'setatu, temati jarri'	«...bere aita horretan tematu baita...»	(39)
tenore 'denbora, unea'	«... "elkhitzeko tenorea hunat nun den jina" ...»	(17)
terreatu 'hil'	«...horrelako erauki-hitzik esaten baduk, Fullini, gerla-kontseilu bidez terreatua izango haiz...»	(324)
tirain 'jarraiko mugimendua'	«...barne-bakarrizketaren tirainak haren gogoia hamaika norabide diferentetara barreiatzen duelarik...»	(357)
tirri 'irrikia, ezinegona, urduritasuna'	«...ea biharko etsaminerako nola moldatzen naizen, tirri bat daukat...»	(210)
tordantxa 'txori ederra' (alondra)	«...militarren alabak izango dira baina, aizu, a ze nolako tordantxak ikusten diren hemen ere...»	(150)




tortika 'azal lohia'	«...hainbat geruza elkargainkatu, hainbat tortika elkarlotu...»	(246)
toteldu 'nekez hitz egin, moteldu'	«...Harresky hau zeharo toteldu eta txepeldu zaigula.»	(371)
trauskil 'baldresa, ardurabakoa'	«—Et-et-et, Mr. Harrison, ez zaitetz horren trauskila izan, arren.»	(93)
trikimailu 'azpikeria'	«...buruan jirabiraka dabilkidan eresi zaharraren trikimailuei amore ematea...»	(30)
troxa 'painala'	«...umearantzako sehaska, burusiak, troxak eta arreo guztia erostera.»	(176)
trukesa 'tenaza'	« Trukesazko maniobra inguratzailea.»	(327)
trumilka 'samaldan, parrastan, tropelean'	«...hil direnak gora-behera, trumilka egiten dute anden gainera salto salbu daudenek...»	(17)
tupusteko 'ustekabekoa, bat-batekoa'	«...nire subalternoen matxinada horren tupustekoa eta bateratua izango zenik ez nuen uste.»	(14)
txarada 'nahastea'	« Txarada bat, hitz gurutzatu gakodunekiko jolasa.»	(282)
txatxu 'dorpea, leloa'	«—Ez, eta ez hadi txatxua izan.»	(32)
txera 'laztana'	«...Erregimentuko zakur eta zaldiei ari zaizkienean baino, azken hauek txera ezin gozoagoaz tratatzen baitituzte.»	(178)
txilbor 'zilborra, tripa'	«...batzu beren txilborrarekin baina oso dotore trajeatuak...»	(69)
txima-jario 'ile hondarrak, luzeak'	«...panpina bat edo beste ere bai, beren txima-jario bakanduekin...»	(20)
tximistura 'urradura'	«...noski baino noskiago, zeren formula lakoniko guztiak axalean egindako tximistura gutxi-asko dotoretuak besterik ez baitira...»	(252)
txintxor 'zattia, txirbila, txirlora'	«...zeren burdin txintxorrek alde guztietara saltatu baitzuten...»	(412)
txiriboga 'denda gisakoa'	«... txiriboga bat ere apailatu dut, txosna-moduko bat...»	(428)
txirripistin 'pirria, erretxina'	«...baina nahiko tipo kanpax eta txirripistina izaki delako kapitain hori...»	(97)
txolarre 'kurloia, artaxoria'	«...likan trabaturiko txolarre baten gisa...»	(94)
txolin 'txoriburua, kaskarina'	«...zertaz ari ote da orain hitz egiten Izaskun dena delako txolin horrekin?»	(261)
txondor 'egur meta'	«Eta txondor itzalian arbazta ikaztuen bila dabilen ikazkina, ni.»	(239)
txorimalo 'giza irudiko mamua'	«...Giovanni ez zegok txorimalo horrekin elkar-hartuta...»	(207)
txorta egin 'amodioa egin, larrua jo'	«...primerako kamaroteetan joango dituk,beren amoranteekin txorta egiten ...»	(219)
txortxi 'soldaduskako laguna' (Quinto)	«...baita tankera askotako ibiltariak ere, txortxiarentzat beharrezkoak diren gauzak eskaintzen dituztenak...»	(30)
txuliatu 'itzuri egin, toreatu'	«Preso gauzkaten teniente-mota guztiak txuliatzen ikasten hasiak garenez geroztik...»	(417)




txutxumutxuka 'isilean, ahapeka'	«...brindisak badaezpadaere txutxumutxuka eginaz, zeren auskalo gurekin zeuden besteak ze arraio ote ziren.»	(266)
uharre 'uhaitza, uriola, uholdea'	«..."uharre lehortuak"..."»	(26)
uher 'arrea, iluna'	«...gauza guztietara hedatzen ari bailiran: zelai-soroen, patio eta biltegien basamortura, erreka uraren uherrera ...»	(85)
uhertz 'ertza, hegala'	«...Niloaren uhertz lohitsuaren ondoan...»	(324)
uhingandor 'uhin handia, bizia'	«Demagun otsaila dela, eta bisutsa, eta Kantauriko uhingandorrak ...»	(333)
uhuritsu 'tristea, malenkoniatsua'	«...pianista beltz baten melodia uhuritsuak ...»	(243)
uieldu 'blaitu, busti'	«Ilea brillantinaz uielduriko tipo bat...»	(151)
ukendu 'gantzia, pomada'	«...gizakiontzako ukendurik ibigarriena...»	(244)
ulu egin 'auhenka,erostaka,aieneka aritu'	«..."aingerutxo" guzti horiei neure detektibe lizentzia federala erakustea eta ilargiari ulu egitea berdintsu baita.»	(93)
urlats 'errekastoa'	«...ehundaka urlatsetan zatituriko korrante laster honetan mugarriak tinkatzea...»	(300)
uros 'zintzoa, esku zabala'	«...zelorik ez, "batzutan uros , bestetan jelos"..."»	(297)
urruma 'kexua, auhena, aienea, deitorea'	«... urruma ozen bat egin eta besoa altxaturik, honelaxe eten dio hizpidea...»	(49)
urrumakatu 'kurrunkatu,sehaskatu,lo eragin	«...musika-kiosko horretan elkarrengana urrumakutzen ari diren neska-mutil bikote horri...»	(38)
urrunetsi 'norbaiten falta sentitu'	«Zenbat urrunetsi zintudan egun osoan barrena.»	(153)
usnan 'usainka, zuznan'	«...bere basurde zahar aurpegiarekin, neure inguruan jiraka, usnan .»	(140)
uzkurtu 'makurtu, lur jo'	«...eta hor, hemen, dakusagu abaildua, uzkurtua , hilduratua...»	(58)
xahal 'txahala'	«...itsasoa bare-bare, xahal amoltsu baten ilaje urdina iduri...»	(219)
xalo 'sineskorra'	«...bide batez esperantza xalozko lerro xehe hauek irundako amaauraunear kateaturik...»	(139)
xaloki 'bizia, bizkorra'	«Entzun, entzun ezak zein xaloki mintzatu zaigun...»	(115)
xaxatu 'zirikatu'	«...mutil bati pikotxa arinago erabil zezan xaxatuz edo, zera esan zion...»	(377)
xerka 'bila'	«...baheki nola dabilen bera ere hire xerka laberinto bihurri honetan aspaldidanik...»	(290)
xeru-xeru 'xaloki, sineskor'	«Eta ni orain arte zerura begira xeru-xeru .»	(202)
ximen 'dotorea / metodikoa, zehatza'	«...(berehalaxe ohartu nintzen frai Ignatius zenaren ortografia ximena zela).»	(285)
ximiko 'piltzikada, atzamarkada'	«...haren besoen sinfonia hire lepoa inguratuz, haren harramazkada eta ximiko konbulsiboak hire bizkarrean...»	(222)



xirripa 'ur txorrotadatxoa'	«...mangerara joateko nintzela, berriro eman zuten halako xirripa mehe bat...»	(146)
xuribide 'azalpena, justifikazioa'	«—Ez diat galdetzen hire jokabidea zein izan den; ez diat behar hire xuribiderik .»	(68)
xuxurla 'plazerezko edo... soinua'	"...oihuen orde, xuxurla antsiaitsu batzu somatu baititut..."	(141)
zabarsko 'zabar xamarra'	«...nonbait apur bat " zabarsko " zebilelako harri garraioan.»	(377)
zabukari 'badaezpadakoa, seguru ez dena'	«..."Gurea Films" etxeko finantza zabukarien arduradun saiatua...»	(203)
zahagika 'zahagi beteka'	«Eta ardoa zahagika ...»	(268)
zahato 'zahagia, bota'	«...mutil mozkote eta lodikoteak zahatoa atera du...»	(23)
zainbehartu 'distorsionatu'	«Gurutze Gamatua, Afrika Korps, SS..., bah, zainbeharturiko konparazio arruntak.»	(240)
zakar 'gogor, modu txarrean'	«Tenienteak goitik behera begiratu eta bat ere adiskide-trazarik gabe zera bota dit zakar ...»	(91)
zakilkeria 'lerdokeria, papaukeria'	«...(Singing in the rain eta gainerako zakilkeria guzti horiek)...»	(163)
zanbuluka 'zabuka, bueltaka'	"...kaio bakan moko-hori batzu Urumeako ur arreen gainean zanbuluka ..."	(18)
zangar 'kementsua, adoretsua'	«Ni Joe Harresky bainaiz, detektibe pribati zangar ausarta...»	(118)
zangopilatuta 'nahasturik, nahaspila handian'	«...heure barreneko aztarnategira sartu eta estrato guztiak zangopilatuta , lardas- katuta eta zisko bat eginda...»	(313)
zantzoka 'irrintzika'	«Hemendixek dakuskit, moxal urdurien gisa zantzoka , bafaka, harrapataka, hemen usna eta han beha.»	(240)
zapart egin 'eztanda egin'	«...altzairuzko juntura guztiak une batetik bestera zapart egingo dutela dirudi.»	(272)
zaputz 'mukerkeria, muzina'	«...zuei geure abegikortasunik bihozkorrena eskaini eta zuek, berriz, zaputz eta destaina besterik ez.»	(117)
zargaldu 'mirriztu, demakratu'	«...bere atzetik, bi poliziak beso banatatik gogor helduta, Mr. Harrison, zargaldurik , begiak izuturik, ile urria harroturik.»	(113)
zarpail 'trauskila, zabarra'	«...Joe Harresky detektibe pribatu zarpailak New York hiriko XXXVI. Barrutiko komisario buruarekin hitz egin nahi du.»	(98)
zarpatsu 'zatar,zarpail,itxura txarrekoa'	«...banderatxo gorria eta uniforme urdin zarpatsua ...»	(16)
zarramazkatu 'eratzi, atzamarkatu'	«Besoak zeharo zarramazkatuta dauzkat...»	(374)
zarrasta 'inpresio txarra, konmozioa'	«...hark eragina zizun zarrastaz jabetu nintzenean.»	(292)
zastadaka 'ziztadaka, eztenkadaka'	«Hemezortzi urtetako lore ahausikalari guztiak zainetan zastadaka ...»	(334)
zehatu 'andeatu,(kolpez)hautsi,zigortu'	«Zakur zehatu , larrutu eta ezkabiatsu baten gisa, Graziaren paradisuatik iraitzia, Espainol Ejerzitoan hondoa joa...»	(58)
zeritzan 'deitzen zen'	«Ez al zeritzan , izan ere, Harry, Harry Haller, lehen aipatu dudan beste maisu horri...»	(101)



zihatu 'gastatu, zaharkitu'	«...zeluloide hollywodiak zihatu batetik kopiaturiko pianista beltz bat...»	(267)
zilborzale 'tripandia, jatuna'	«...heure hirikideen jokabide zilborzalea deitoratuz.»	(24)
zilegi 'haizu, libre, permititurik'	«...igande-arratsalde ezin aspergarri eta abailgarriago batean zilegi diren libertimendu bakarrak.»	(38)
zimel 'berezko guritasuna galdua'	«...azken momentuan pekinesak ihes egiten dion atso zimelaren asaldura...»	(16)
zinkulintsu 'kexuzkoa, negar itxurakoa'	«Zizpuru zinkulintsu bat egin du...»	(117)
zinkurina 'hasperena'	«Okendo kaleko kafetegian, nolako zinkurinak , nolako emozio-plantak...»	(340)
zinti 'apala'	«...mila esker laudoriozko zure hitz inondik ere zinti horiengatik...»	(60)
zio 'arrazoia, zergatia'	«Ez bide du ulertzen nire irri-karkararen zioa , gizarajoak.»	(12)
ziplo 'bat-batean, berehala'	« Ziplo aldatu zuen hizketagaita...»	(281)
zipotz 'zuloa estaltzeko kortxo,paper...'	«...izan ere, sarraila hautsita dagoenez, paper tolestatzeko zipotz batez eutsita zegoena...»	(20)
zirimola 'erauntsia, ekaitz indartsua'	«...eta koloreen eta usainen zirimolan babestu ahalko naiz ahalkerik gabe...»	(15)
zirkin 'mugimendu izpurrik ere'	«Baina ez ezak hemendik alde egiteko zirkinik ere egin...»	(67)
zirt edo zart 'erabaki'	«...noiz ikasiko duk zirt edo zart egiten?...»	(361)
zirto 'ateraldia, erantzun bizia'	«...barre egin dute, beren buru(zagi)aren zirtoari ederretsiz-edo.»	(114)
zirtzikatu 'birrindu, hauts egin'	«...Txirla-oskol zirtzikaturen bat zapaltzean minbera ez daitezen.»	(194)
zirtzilatu 'birrindu, txiki-txiki egin'	«...jazoera nardagarri hauen menpean kateatua gera dadin, gainezkatua eta zirtzilatu... »	(128)
zirtzileria 'huseria, baliorik ez duena'	«...eta orain hi holako zirtzileriatan hastea falta zaiguk bakarrik.»	(15)
zizakari 'dudazkoa, hasi berria'	«...kajoi-hondoetan naufragaturiko lehen poemaki zizakariak... »	(343)
zizakatu 'inposatu, gaineratu'	«...erantzuna zizakatzeko astirik ere eman gabe...»	(205)
zizkolatsu 'kirrinkaria, ozena, zaratatsua'	«Orduan burrunbada zizkolatsu bat aditu zen biblioteka bakartian...»	(82)
zizpa 'eskupeta, arma'	«...\"txapelokerren zizpa luziak\" Errenteria hiri ilun ketsuan diz-diz...»	(347)
zizpatu 'mozkortu, atxurtu'	«Gero, gehientsuenak dexente zizpaturik , kanpamentuan barrena ibiliko gara...»	(109)
zizpuru 'hasperena'	«...nire mihiak zurea laztantzen, eta zizpuru bat dagizu...»	(73)
ziztadaka 'zauri edo sastada eginez'	«...EUTGko dorre-orratz gorritzak egurats grisari ziztadaka... »	(18)



ziztrin 'balio gutxikoa, ez-gauza'	«—Ez. Ez diat mozorro-dantza ziztrin horietako batean parte hartzeko gogorik.»	(13)
zogiki 'kontuz, apalkiro'	«Oso zogiki , Marx-i buruz hitz egiten hasi naiz piska bat...»	(168)
zokor 'mokil,lur puska lehor-gogorra'	«Lur-zohiak, zotal lehortuak, zokor gotorrak.»	(313)
zoldatsu 'herdoila, ugerra'	«...15 tanke zoldatsu eta kakazu daude hemen...»	(137)
zoluztatu 'zolua jarri'	«...tankeentzako "parking" estali berria zoluztatzeko ...»	(374)
zuhurgabezia 'pentsatu gabekoa'	«... "zuhurgabezia" (—"imprudencia" ere jar ezak, badaezpadaere, ongi uler dadin).»	(457)
zukutu 'zopak egin'	«...esne-katilukada bat —eta "corn-flakes" eskukada bat bertan zukuturik — gosaldtu ohi duen katu siames txuri baten konpainian.»	(87)
zur eta lur gelditu 'harrituta, zurturik'	«—Beno, ikusten dut zur eta lur gelditu zaretela.»	(182)
zurubi 'eskailera'	«...Alostorreko zurubi luzea"...»	(148)
zuzpertz 'adoretu, animatu'	«...ziur dagoela bizitzeko gogoia zuzpertz en lagunduko diozula...»	(54)